

2. IRTEERA BEREZIAK



2.1. Ordizian. Josetxo Imaz IX. Memoriala

2009ko irailaren 27an, Ordiziako TXINDOKI ATLETISMO TALDEAK, bere omenez haur eta helduentzat lasterketa ezberdinak, antolatu zuen.

Benjaminetan, 6
neska eta 15 mutilek, eurentzat
prestaturiko 600m.tako
lasterketan parte hartu zuten.



Alebinetan,
mutilik ez eta 2 neska izan ziren 800m.tako ibilbidea egin
zutenak.




2.3. Idiazabalgo XXX.Herri Krosa



Idiazabalgo

festetan, urtero antolatzen den krosera Aita Iparragirre ikastetxeako maila ezberdinetako 21 neska eta 24 mutilek parte hartu zuten.



Aipatzekoa da, **neska benjaminetan (2000)** AMAIA LOPEZek irabazi zuela.

Eta **mutil alebinetan**, EGOITZ TELLOK hirugarren amaitu zuela.

Hori esan ondoren, parte hartu eta denak halegin guztian aritu zirenez, **ZORIONAK DENERI.**

3.- DIPUTAZIOAK ANTOLATUTAKO KIROL SUSTAPENERAKO KANPAINAK

3.1. Igeriketa

Aurreko urteetan bezalaxe, Beasaingo Antzizar Kiroldegian egin zuten igeriketako ikastaroa.

Aurten ere 1.go, 2. eta 3. mailakoak egin zuten.

Irailaren 9tik, urriaren 6ra eta goizeko 9:45etatik 10:30etara; 1go mailatik 31 ikasle, 2. mailatik 21 eta 3.mailatik 19, guztira Aita Iparragirre Herri Eskolako 71 ikasle izan ziren. Monitorea Fran Carmona eta Elena Bermudez izan zituzten.

Oso ongi eta oso gustora aritu ziren ikasle denak.

3.2. ERRUGBIA

Aurten ere, kirol hau ezagutzeko eskaintza jaso genuen.

Urriaren 8an eta 9an BENJAMINAK eta 15ean eta 16ean ALEBINAK Ampo-Ordiziako errugbi taldeko Tom, Phil, Jim eta Devin jokalarari atzerritarren esanetara egon ziren.

Ingelera praktikatzeko eta errugbia zer den ere pixka bat ikasteko aukera izan genuen.

3.3. Herri Kirolak

Abenduaren 4ean, goizeko 9:00etatik 10:00etara 6. mailakoak eta 10:00etatik 11:00etara 5. mailakoak, eta urtarrilaren 28an Benjaminak, Herri Kirolari buruzko saio berezia izan zuten.

Monitorea, Herri Kirolaren federaziotik etorri zen Segurako Eñaut Telleria izan zen.

Oso-oso ondo eta gustora aritu ziren denak.

3.4. Xakea

Urtero bezala, ostiraletan arratsaldeko 14:30etatik 16:30etara apirilaren 16an hasi eta ekainaren 18an 6. mailako ikasleek xakeko klaseak bukatu zuten. Monitorea lanetan Anttonio Berasategi idiazabal darra izan zuten.

4.- BALORAZIO OROKORRA

Nere iritziz, Kirol Eskolarraren helburua, lehia hutsaren gainera **HEZITZEA ETA JOLAS EGINAZ GOZAMENA BULTZATU** behar da, ondo pasatu, kirolean ikasi eta lagunak egin, kirol aniztasunean (practica polideportiva) oinarrituaz.

Kirolarekiko zaletasuna sortu eta bultzatu.

Kirol aniztasunean oinarritutako jarduera hauek, haurraren heziketa osoan eta bere nortasunaren garapenean lagunduko dute eta, baita egoera fisikoa eta prestakuntza lortzen ere, horrela goragoko adinetan kirolean jarrai dezaten bide emanaz.

Entrenatzaile-laguntzaileen gaian, horrela banatuta izan dira:

- SASKIBALOIAN: Alvaro Lopez, Idoia Sanz, Edurne Urrestarazu, Maialen Aseginolaza, Saioa Aranburu, Maialen Jauregi, Oihane Unanue, Myriam Aranburu, Maite Intxausti, Naiara Aranburu, Maialen Mendizabal, Naroa Insausti, Amaia Telleria, Joseba Eskudero eta Ibai Urkia.

ARBITROAK: Mattin Intxausti, Naiara Aranburu, Idoia Sanz, Maialen Aseginolaza, Joseba Eskudero, Ibai Urkia eta Xabier Intxausti.

MAHAIKO LANETAN: Jon Mujika, Asier Mujika eta Mattin Intxausti.

- ARETO FUTBOLEAN: Alvaro Lopez, Idoia Sanz, Edurne Urrestarazu, Maialen Aseginolaza, Saioa Aranburu, Maialen Jauregi, Oihane Unanue, Myriam Aranburu, Maite Intxausti, Naiara Aranburu eta Maialen Mendizabal.

ARBITROAK: Mattin Intxausti, Xabi Sanchez, Maialen Mendizabal eta Ibai Urkia.

MAHAIKO LANETAN: Jon Mujika eta Asier Mujika.

- ZORTZIKO FUTBOLEAN: Joseba Eskudero eta Ibai Urkia.

ARBITROAK: Xabier Sanchez.

- ESKUBALOIAN eta SOFBOLEAN: Alvaro Lopez, Idoia Sanz, Edurne Urrestarazu, Maialen Aseginolaza, Saioa Aranburu, Maialen Jauregi, Oihane Unanue, Myriam Aranburu, Maite Intxausti, Naiara Aranburu, Maialen Mendizabal, Naroa Insausti, Amaia Telleria, Joseba Eskudero eta Ibai Urkia.

ARBITROAK: Ordiziako, ESKUBALOI taldekoak eta SOFBOLEKO taldekoak.

- **ATLETISMOAN:** Naiara Aranburu, Maialen Mendizabal, Myriam Aranburu, Maite Intxausti, Maialen Aseginolaza, Saioa Aranburu, Edurne Urrestarazu, Lurdes Intxausti eta Xabier Intxausti.

- **HERRI KIROLETAN:** Naiara Aranburu, Maialen Mendizabal, Myriam Aranburu, Maite Intxausti, Maialen Aseginolaza, Saioa Aranburu, Lurdes Intxausti eta Xabier Intxausti.

- **MENDIKO IRTEERATAN:** Anttonio Berasategi eta Joxe Goikoetxea.

- **PELOTAN:** Unai Urretabizkaia.

ESKERRIK ASKO GUZTI GUZTIOI !!!

Gurasoei, dei berezi bat egin gabe ez nuke bukatu nahi. Lehen esan dudan bezala, haurraren heziketa osoan, kirolak duen garrantzia ikusirik, seme-alabei motibatu eta laguntzeko garaietan, **zuen bultzada ezinbestekoa da: irabazteari garrantzia kenduz eta parte hartzearekin haurraren ahalegina eta jarrera baloratuz.**

5.- XABIER INTXAUSTI KOORDINATZAILEA

5.1. Koordinazio lanak

Diputaziora bidaltzeko datorren ikasturteko **Eskola Kirolaren AURREPLANGINTZA** eta aurreko ikasturteko MEMORIA egin.

Ikasleentzat Kirol eskaintza orrietan prestatu eta gurasoei honen berri eman eskutitz baten bidez.

Gelaz gela orri hauek azalpen batekin banatu, ikasleek parte har dezaten animatu eta motibatuz.

Ikasleek kirol aukeraketa egin ondoren osatutako talde bakoitzeko "Izenemate-Orria" bete.

Entrenatzaileak eta arbitroak bilatu eta entrenamentutako ordutegiak antolatu.

Mendi irteeratako izena eman duten ikasleen gurasoekin eta kirol elkarteko arduradunarekin urtean zehar antolatuko diren ibilaldien egutegia prestatzeko bilerak egin.

Urriaren bukaerako, maila eta kirol bakoitzeko "Partaideen Izena Emateko Orria" bete.

Ikasturtean zehar, astelehenero, Diputazioak Ordizian duen Kirol bulegoan, Goierri Beheko beste ikastetxeetako koordinatzaileekin batera eskualdeko Eskola Kiroleko ordutegiak eta bestelakoak finkatu eta antolatu.

Bilera hauetan erabakitako kirolen jardueren ordutegiak prestatu, ikasleei idatziz eman eta eskolako ohar-arbeletan jarri.

Jarduera bakoitzaren ondorenean aktak bildu eta Ordiziako bileretara kopia bat eraman.

Herritik kanpo egiten diren jarduerak, Diputazioak garraiorako duen diru laguntza jasotzeko "Taldeen joan-etorrietako inprimakian", idatzi.

Diputazioak, Goierriarako duen Kirol Koordinatzaileekin harreman iraunkorra izan urte guztian.

Diputazioak, kurtsoan zehar antolatzen duen sustaketa jardueren artean: Igeriketa, Errugbia, Herri Kirolak e.a. eskaerak bideratu.

Ikasturtean zehar, entrenatzaileekin eta arbitroekin harremanetan egon eta hauen jarraipenaz arduratu.

Kurtso bukaeran, urteko memoria egin.

Idiazabal, 2010eko ekainaren 30ean

Xabier Intxausti Barandiaran

Eskola Kiroleko Koordinatzailea